



Testua: Maribel Herruzo  
Argazkiak: Oscar Elías

# New York

NEGUKO DISTIRA BEREZIA



## NEW YORK

New York hiriak Esker emate egunaren eta Urteberri egunaren artean bost milioi bisitari baino gehiago jasotzea espero du. Horrek, noski, argi uzten du New York bisitatzeko erabakia azken unerako uztea ez dela, inolaz ere, ideia ona. New Yorkeko hiritarrek beraiek esaten dutenez, Gabonetan munduko hiririk polita bilakatzen da Sagar Handia. Hori egia izan edo ez, inolako zalantzarik ez dago New York neguan bisitatzeko, batik bat abenduan, inoiz ahaztuko ez dugun esperientzia dela.

**H**ainbeste aldiz ikusi dugu etxeko sofatik edo zinema areto bateko butakatik, bertan inoiz egon ez izanagatik guztioi ere ezaguna egiten zaigula New York. Hiriak, baina, distira berezia hartzen du abenduan, nonahi ikus daitezkeen argiak lagun, hiri erromantikoaren koroa Venezia edota Parisi lapurtzeko moduan izaten baita New York Gabon garaian. Gogoratu, bestela, Richard Gere eta Winona Ryder aktoreak Rockefeller Center ezaguneko izotz pistan patinatzen "Autumn in New York" filmean; edota John Cusack eta Kate Beckinsale "Serendipity" filmean Bloomingdale's merkataritza zentroan erosketak egiten, edo Central Parken izotz gainean patinatzen. Bai, eurak ere patinatzen, Ryan O'Neal eta Alie MacGraw aktoreek "Love Story" entzutetsuan alde aurretik egin bezala. Nicolas Cage berak elurra mara-mara ari den artean "Family man" filmean duen bizitza bikoitza ere har dezakegu gogoan, non eta New Yorken kokatutakoan artean Gabon giroko film nagusia izan daitekeen lanean. Hori bai, nagusia agian bai, baina inolaz ere ez bakarria, Gabon giroko hamaika lanek baitute kokalekutzat New

York, bestea beste "Home Alone 2: Lost in New York", "Elf", "Scrooged", "Alfie" edo "Miracle on 34th Street" filmaren bi bertsioak. Filmon kalitatea gorabehera, guztotan aurkituko dugu New Yorken abenduan topa dezakegunaren ikuspegi nahiko zuzena. Hori bai, beti bezala, ezin dugu ahaztu errealitateak fikzioa gainditzen duela.

### Gabonak azaroan hasten dira

Egiari zor, New Yorken "Gabonak" berez Gabon eguntzat hartutakoak iritsi baino askoz lehenago hasten dira, hain zuzen ere Esker emate egunaren biharamunean; Ostiral Beltza bezala ezagututako egun hori gure beherdietako lehen egunaren parekotzat jo dezakegu, betiere estatubatuarrek hain gustuko duten handitasun ukitua kontuan izanik, noski. Ostiral Beltzean New York argiz gainezka iratzartzen da, denda guztietan gero eta landuago eta irudimentsuagoak diren dekoratuak jartzten dituzte, kaleetan nonahi ikusiko dugu Bizarzuri kanpaia jo eta jo... Azken batean, den-denak hartzen du distira berezia. Pentsa, Cartier etxe elegante eta sofistikatuak berak ere, lazo gorri izugarri handi bat jartzen du bere egoitzaren fatxadan. Beti da gomendagarria New York bisitatzeko, edozein urtarotan, baina, ez izan zalantzarik: abendua baldin bada, aukera baliatu, inoiz ez baituzue pareko ezer ikusiko bizitza osoa bidaiatzen emanagatik.

Hitz egin dezagun, adibidez, begirada guztiak bereganatzen dituen zuhaitzak: Rockefeller Center entzutetsuan jartzen dutena. 1931tik, merkataritza guneko lorezaintza zuzendariak aukeratutako izei gorriak urtero-urtero hartzen du abenduan bertako plaza nagusia. Aukeratutako zuhaitzak gutxienez 20 metro eta mende erdi izan behar ditu. Kristal eta harribitxi etxerik famatuena prestatutako izar handi batek koroatu eta kontsumo baxuko 30.000 LED argik inguratutako zuhaitza jartzen den uneak irekitzen du ofizialki, gainera, Gabon garaia New Yorken. Zuhaitzaren oinetan, berriz, munduko izotz pistarik famatuena jartzen dute, *low cost* patinatzaileentzako beste bi aukera merkeagoak ere izan badiren arren. Lehenengoa Central Parkeko Trump Rink da, eta, bestea, doakoa, Bryant Parkeko The Pond. Bryant Parken, gainera, ez dugu doako izotz pista bat bakarrik aurkituko, opariak erosteko aukera emango digun azoka bat ere jartzen baitute urtero bertan Gabonen aurretik.

### Argien artean pasieran

Gabon denboraldiaren inaugurazio ofizialetik Urtezhar egunera bitarte, hilabete oso-oso bat dago askotariko bisitaldi, ekintza eta erosketez gozatzeko. Behin-behinekoak izanagatik ezinbestekotzat jotako ibilbide ugari ere badaude, batik bat argizatutako guneekin lotuak. Izan ere, argiak ez dira zuhaitzetan, kale komertzialenetan edo merkataritza gunetako dendetan bakarrik jartzen; etorbideak, parkeak edota etxebizitza

partikularrak ere kolorez betetzen dira. Gaua heldzearekin batera argiek Manhattan uhartea urte guztian zehar bereganatzen baldin badute, abendua heldzearekin batera espektakulua, ezinezkoa dirudien arren, biderkatu egiten da: Brooklyneko zubia zeharkatzean era guztietako dirdirekin zipriritindutako margolan batekin egingo dugu topo. Ibilbide bat kontratatzekeo bidaia agentzia edo gidari turistikoaren eskaintza faltarik izango ez badugu ere, inolako laguntzarik ez dugu behar gora begiratu, eta, ezinbestean, Empire State eraikineko argi ikusgarriekin bat egiteko. Bosgarren Etorbide entzutetsuan kokatuta dago eraikina, eta ez pentsa gero bertako argiak bakarrik ikusiko ditugunik: edonon aurkituko ditugu eraikinen aurrealdeetan proiektutako irudiak, erabat apaindutako zuhaitzak edo erakuslehoi liluragarriak.

Erakuslehoiak ikustea gustuko badugu, ibilbide bikaina egin dezakegu. Lehenik eta behin, Bloomingdale's merkataritza zentroko eszenografia dotorea ezagutuko dugu (Hirugarren Etorbidea 1.000, 59. Kalean). Aurten-



Neguko arratsalde hotzetan, erakusketaren bat bisitatzeko plan ezin hobea izan daiteke New Yorken, hiriak aukera ugari eskaintzen baititu. Lerroan gainean, The Metropolitan Museum of Art museoko areto bat. Ezkerrean, Times Square.

## NEW YORK

goan, mundu osoko erosleei eskaini diote eszenografia, eta, ondorioz, herrialde ezberdin mordo bateko ikono ezagunak aurkituko ditugu bertan. Ezinbesteko hurrengo geldialdia Barneys da, urtero erakusleio ausart eta abangoardistenei leku egiten dien merkataritza gunea (Madison Avenue 660, 61. Kalean). Hirugarren geldialdia oso gertu egingo dugu, Grand Army Plaza eta Central Parkeko hegoaldeko urrundu beharrik gabe: Bergdorf Goodman merkataritza gunean (Bosgarren Etorbidea 754, 58. Kalean). Bertako erakusleioak oso sofistikatu eta estilizatuak izan ohi dira, eta, dendetan murgilduz gero, goi mailako jostuntzako harribitxiak eta benetako artelanak diren antigoaleko produktuak aurkituko ditugu. Bosgarren Etorbidetik behera jarraitzen badugu MoMa New Yorkeko Arte Modernoaren Museoa ezkerrean utziz eta San Patrizio Katedrala eskuinean, Saks saltokira helduko gara (Bosgarren Etorbidea 611, 49. Kalean). Bertako eszenografia aurreko bi guneetako baino xumeagoa izan ohi da oro har, baina, ez izan zalantzarik: ipuinetatik ateratakoak diruditen eszena oniriko eta fantasiosak izugarri eraginkor eta harrigarriak ere badira. Bosgarren Etorbidea utzi gabe, Liburutegi Publikoa iragan bezain laster Lord & Taylor saltokiekin egingo dugu topo (Bosgarren Etorbidea, 39. Kalean). 1938. urtetik lanean diren saltokiek, Gabonetako elementu eta istorio tradizionalenei egiten diete leku. Ezinbesteko azken geltokia Macy's saltokietan egingo



Ezinbestean egin beharreko jarduera ugari daude New Yorken, eta horietako bat Upper West Side auzoko kafetegi txikitant sartzea da. Lerroon eskuinekoa Cafe Lalo da. Lerroon gainean, City Girl Cafe, West Villagen. Eskuineko orrialdean, Brooklyngo zubia.

dugu (Herald Square, Broadway, 34. eta 35. kaleen artean). Urtero-urtero "Miracle on 34th Street" filmeko eszenak irudikatu ohi dituzte, saltokia kale horretan bertan baitago; horrez gain, bigarren erakusleio batean, urtetik urtera aldatzen duten beste gai bat ere jorratzen dute.

Erakusleioak dagoeneko ahaztuagatik, Gabon giroko apaingarriak ez ditugu oraindik alboratuko. Argi-joko ikusgarrienak, adibidez, Brooklyn barrutiko Dyker Heights auzoan aurkituko ditugu. Izan ere, auzotarrek euren etxeen aurrealdeak goitik behera apaintzen dituzte nork emaitza ikusgarriagoa lortu lehian. Dekrazioaz arduratzen diren auzotarrak izan badauden arren, kasurik gehienetan profesionalak kontratatzen dituzte lan horretarako. Hirian gehien argitutako etxadiak, berriz, honako guneetan aurkituko ditugu: Brooklyn bertako 81. eta 86. kaleen artean eta 10. eta 13. etorbideen artean. Metroa ez da inguruotaraino heltzen, baina ez dugu bertaratzeko arazorik izango, autobus ugari izango baitugu aukeran. Oraindik ere Gabon giroko eszenografiekin gozatzeko gogoz bagaude, World Financial Centerreko Winter Gardeneko ataria bisita dezakegu, bertako ganga formako kristalezko sabaia modu liluragarrian argizatzen baitute.

### Plan bat izatea, ezinbestekoa

New York bisitatzeko orduan, ezinbestekoa da ondo landutako plan bat izatea: ez galtzeko, denborarik alferrik





**BEHERALDIEN ETA «OUTLET» DENDEN IBILBIDEA**

New Yorken Gabonetako beheraldiak Ostiral Beltzarekin batera hasten dira, azaroaren amaiera aldera. Baina, horrez gain, jaiegunetan eskaintza bereziak izaten dira eta marka zein saltoki bakoitzak ere egin ohi ditu beherapen bereziak egun jakinetan. Horrenbestez, ezinbestekoa da ondo informatuta egotea, eta, horretarako, Internetera jotzea da aukerarik onena ([www.topbutton.com](http://www.topbutton.com), [www.dailycandy.com](http://www.dailycandy.com), [www.nymag.com](http://www.nymag.com)). Era berean, kontuan izan behar da *outlet* denda ugari daudela New Yorken, hau da, urte guztian zehar beherapen bereziak dituzten saltoki ugari. .

- Century 21 (Cortland Street 22 eta Broadway 1.972, 66. eta 67. kaleen artean): Diseinatzaile prestigiotsuenen arropetan %70 arteko beherapenak aurki daitezke. Manhattan
- Loehmann's (Zazpigarren Etorbidea 101, Chelsea): Diseinatzaile ezagunen arropetan %30 eta %65 arteko beherapenak.
- TJ Maxx (620 Ave of the Americas - Flatiron District / 407 E 59th St., Midtown): *outlet* denda.
- Marshall's (TJ Maxx dendaren ondoan dago): desordena eta kaosa izan ohi da nagusi, baina oso eskaintza onak izan ohi ditu.
- Woodbury Common (Central Valley, New York kanpoaldea): diseinatzaile eta marka ezberdinen produktuak eskaintzeko

aukera ematen duen *outlet* erraldoia. New Yorketik ordubete ingurura dago.

- Lower East Side auzoan larruzko artikulua aurki daitezke, besteak beste Allen Street, Orchard Street, Ludlow Street, Houston Street eta Canal Street kaleetan.
- Greewich eta West Village Diskoak, liburuak, antigoaleko gauzak, artisautza produktuak bezalako opariak erosteko leku ugari aurkituko ditugu, baita arropa denda ugari ere. Diseinatzaile handiak Broadway eta Seigarren Etorbidearen arteko 8. Kalean eta Seigarren Etorbidearen mendebaldean kokatutako Bleecker Street kalean biltzen dira.
- DSW (40 E. 14th Street, hirugarren solairua, Union Square): diseinatzaile ezagunen zapatak aurkituko ditugu beherapen handiekin.
- J&R (Park Row 1, City Hall Park): elektronikaren espezializatutako saltoki handia da.
- B&H Photo-Video (Midtown, 34. Kalearen eta Bederatzigarren Etorbidearen elkargunea): argazkilaritzaren espezializatutako denda da.
- Toys "R" Us (1514 Broadway), Sanrio (233 W. 42nd St.), M&M's World (1600 Broadway), Disney (1540 Broadway) eta Hershey's (1593 Broadway): jostailu dendak.
- Columbus Circle plazako dendak.



Erakusleihoak ikustea gustuko duenak Bosgarren Etorbide entzutetsuan murgiltzea besterik ez du (ezkerreko orrian). Lerroon gainean, Hiriko panoramika bat, Museum of Modern Art eraikinaren barrutik. Behean, ezkerrean, Astor Place, East Villagen. Eskuinean, metroko irudi koloretsu bat.



ez galtzeko, eguzki orduak aprobetxatzeko eta zer egin eta ikusi zehatz-mehatz jakiteko. Eguna hotza baina eguzkitsua baldin bada, erosketak alboratu eta paseo bat ematera irtengo gara, besterik ez. New York gertutik ezagutu duten artistetatik bat bera ere axolagabe utzi ez duen argiaz gozatuko dugu. Norbait bere lanean kasaren edertasuna islatzeko gai izan baldin bada, seguruenik berriki hildako Saul Leiter argazkilaria da pertsona hori. Bere obraren zati handi bat New Yorkeko bizitzaren egunerokotasuna islatzera bideratu zuen Leiterrek, baita lortu ere. “New York Times” egunkari entzutetsuak aitortu bezala, «sinfonia polikromo lasai bat, bere garaikideetako oso gutxik entzun nahi izan zuten musika bisuala» utzi zigun Leiterrek, arratsarekin batera New York hartzen duten tonu laranja inork baino hobeto betiketuz, filtro zinematografiko erraldoi bat erabili balu bezalaxe. Central Parkera hurbiltzean, zuhaitzetako adar biluzietan barna sartzen den neguko argiaz gozatuko dugu, kirolariak korrika, maiteminduak

pasioan eta txakurrak jabeekin jolasean ikusten ditugun bitartean. Mandarin Oriental hotelean ostatu hartzeko zortea baldin baduzue (biziki gomendatzen diuzet), ikuspegi oneko gela bat eskatu: ez dago goizean goiz jaiki eta leihotik parkea gure oinetan ikustea bezalakorik, atzealdean etxe orratzez jositako paisaia dugula. Ikusten ari garen argi hori, baita haizea ere, argazki gehien atera dioten munduko zubiaren egitura bertan ere barneratzen da: Brooklyngo Zubian. Ohi baino arropa gehixeago jarri eta zubia pasieran gurutzatu, edo, bestela, Woody Allen eta Diane Keatonek “Manhattan” filmean egin bezala, geldi zaitezte zubiari adi-adi so, erabat txundituta. Familiako txikienekin batera egin baldin baduzue bidaia, urtarilaren 12ra bitarte New Yorkeko kaleak eskalan gurutzatzeko aukera izango duzue Bronx auzoko Lorategi Botanikoan: guzti-guztia, gainera, material naturalekin eginda dago, azalak, arramak edo haziak erabiliz besteak beste.

Arratsalderako, aldiz, erakusketaren bat bisitatzea

aukera aparta izan daiteke. Negu honetan, gainera, Marc Chagallen lanak ikus daitezke Museo Juduan, Vasili Kandiskirenak Neue Galerie galerian eta Rene Magritterenak MoMa museoan. Ezinbestean egin beharreko beste ibilbide eta jarduerak ere badaude New Yorken: China Town kaotikoan barneratzea, Upper West Side auzoko kafetegi txikietan galtzea, Brooklyn barrutiko Williamsburg auzoan murgiltzea hiri-arteaz egutuz eta Wythe hoteleko jatetxean afaltzeko, SoHo entzutetsuko arropa dendetan zokomiran ibiltzea, edota Greenwich Village bisitatu eta bertako antzoki eta arte galeriak ezagutzeko. Gure oporraldietan, baina, egun handi bat ere izango dugu zalantzarik gabe. Beno, egia esanda, gau handi bat.

#### Urtezahar gaua

Urtero-urtero bai milaka newyorktar bai mundu osotik heldutako bisitari andana bildu ohi dira Times Square entzutetsuan urte berriari ongietorria eman asmoz.

“New York Times” egunkariak hasi zuen tradizioa 1907an, baina, urtetik urtera, indar handiagoa du: gero eta gehiago dira urteko azken segundoekin batera jaitzen den kristalezko bola izugarriaren aurrean biltzen direnak. Ekitaldia gertutik jarraitu nahi izanez gero, ezinbestekoa izango dugu Times Squarera ordu batzuetako aurrerapenarekin hurbiltzea, betiere gunea utzi behar ez izatea ahalbidetuko diguten jaki eta edariak hartuta. Hitzordu mitiko horri uko egin eta urte berriari hasiera lasaiagoa eman nahi baldin badiogu, Prospect Packera joatea izan daiteke aukerarik onena. Brooklyneko parke horretan, su artifizialak ikusi eta zuzeneko musikaz gozatzeko aukera izango dugu besteak beste. Sibaritentzat, berriz, bada azken aukera bat ere: East River ibaian barna zeharkaldia egitea. Bakoitzak erabakiko du zer egin; nik, nire aldetik, gauza bakarra dut jada esateko: *happy new year!*

NEW YORK

Manhattan uhartera urte guztian zehar egoten da argiz josita, baina abenduan ikusgarriagoa bihurtzen da, era guztietako dirdirekin ziprztindutako margolana bilakatzen baita ingurua.

